



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko otsailaren 14a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, ondoko foru legeak aldatzeko: Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea eta Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea. Foru Araubideko Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europari buruzko informazioa sustatzeko laguntzen kontusaila sor dezan. Foru Araubideko Batzordeak bazter utzia (6. or.).

—Adierazpen politikoa, holokaustoaren oroimenezkoa eta gizateriaren kontrako krimenen prebentzioaren aldekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, enplegua erregulatzeko espedienteen kopuruari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (7. or.).

—Galdera, N-121-A errepidean falta diren tarteak egiteko epeei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (7. or.).

—Galdera, energia plana prestatzeari buruzkoa, foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egina (8. or.).

—Galdera, oposizio espedienteetan dauden informazioa eta kopiak eskuratzeko oposizio-egileek dituzten eskubideei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (9. or.).

—Galdera, Atetzen ikasleentzako autobus geltokiak paratzeari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Comptos Ganberako 2005erako plantilla organikoa eta 2004ko abenduaren 31n haren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda ([11. or.](#)).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, ondoko foru legeak aldatzeko: Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea eta Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Foru Araubideko Batzordeak ondoko foru lege proposamenari buruzko irizpena onetsi du: "Foru Lege proposamena, ondoko foru legeak aldatzeko: Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea eta Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea."

Onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2004ko irailaren 13ko 75. Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz, Osoko Bilkuran zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 4, 9 eta 13. zenbakiko zuzenketa, Aralar parlamentu-taldeak aurkeztuak.

– 2, 7, 11, 16, 18 eta 20. zenbakiko zuzenketa, Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak aurkeztuak.

Zuzenketa 2005eko urtarrilaren 26ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2005eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

Foru Lege proposamena, ondoko foru legeak aldatzeko: Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea eta Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Legebiltzarrak berak sortu dituen eta bere menpekoak diren organoetako kideak edo titullarrak hautatu eta izendatzeko batzuetan eskatzen diren portzentajeetara iristeko gehiengo parlamentario zabalak lortzeko zailtasunak daude, bai eta hautatuek edo izendatuek karguan aritu beharreko aldi osoan gehiengo horiei eusteko ere; egoera horren ondorioz, beharrezkoa da gehiengo horien beharra berrikustea, eta halaber haiekin loturik egon litezkeen beste betebeharrak batzuen ere, ulean uneko egoera edo politikoak galaraz ez dezan dena delako hautaketa edo izendapena.

Alde batetik, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa, zeina legeak -Arartekoa arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea- Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria dela dio 1. artikuluan. Bigarrenik, Nafarroako Ikus-entzunezkoen

Kontseilua, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak sortu zuena Nafarroako Parlamentuak hautatu beharreko organo independente gisa, zioen azalpenean adierazten denez; azkenik, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea, martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legeak sortua.

Foru Komunitateko Arartekoaren kasuan, hura arautzen duen foru legearen 2. artikulua Parlamentuko kideen hiru bostenek osaturiko gehiengo eskatzen du izendapenerako; gehiengo hori Comptos Ganberako lehendakariaren izendapenerako eskatzen dena baino askoz handiagoa da.

Gauza bera esan daiteke Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaz, hura arautzen duen foru legearen 23.1 artikulua xedatzen baitu organoak dituen zazpi kideetatik bost Nafarroako Parlamentuak hautatuko dituela, parlamentarien bi herenek osaturiko gehiengoaz, hau da, Foru Komunitateko Arartekoaren izendapenerako behar dena baino gehiengo kualifikatuagoaz.

Gaur egun, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailean gehienez ere hamaika kide egonen dira, eta osaketa hori eserlekuen banaketaren proportzionaltasunaren isla izan beharko da, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran parlamentu-talde bakoitzak dituenena; talde bakoitzak kide bat izan beharko du, gutxienez, kontseilu horretan, eta kontuan harturik zein den gaur egun, 2003ko hauteskundeez geroztik, Parlamentuaren osaketa, ia ezinezkoa da agindu hori betetzea.

Horregatik guztiagatik, aipatutako hiru foru lege horiek aldatzeko foru lege bat onestea proposatzen da, testu honekin:

1. artikulua. Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legearen aldaketa.

Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legeko 4. artikuluko 1. idatz-zatiaren edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

“1. Kontseilu Aholku-emaileak hamaika kide izanen ditu gehienez; Nafarroako Gobernuako lehendakariak izendatuko ditu, parlamentu-taldeek proposatuta.

Parlamentu-talde bakoitzak proposatu beharreko hautagai kopurua zehazte aldera, zatiketa bat eginen da talde bakoitzaren parlamentari kopurua zatikizun izanen duena eta zatitzaile, berriz, Legebiltzarra osatzen duten kideen kopurua zati Kon-

tseilu Aholku-emailea egin eta horrek ematen duen osoko zatidura.

Emaitza horiek, osoko zatidura horiek alegia, talde bakoitzak proposatuko duen kide kopurua emanen dute. Hala ere, aurreko eragiketaren emaitza aplikatzearen ondorioz ez badira hamaika postuak betetzen, zatiketen hondarrei begiratuko zaie, eta, hondar handienetik txikienera, kide bana esleituko zaio talde bakoitzari, hamaika postuak bete arte.

Hondarren arteko berdinketa gertatuz gero, zer taldek ez du(t)en kiderik lortu osoko zatidura bidez, horri edo horiei esleituko zaie.”

2. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatuko du; sei urterako, hain zuzen. Arartekoak Parlamentura jotzen badu, Parlamentuko lehendakariaren bidez eginen du.

2. Foru Araubide Batzordea arduratuko da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarekin harremanak izateaz, eta, halaber, batzorde horren ardura izanen da Osoko Bilkurari behar diren guztiak jakinaraztea.

3. Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa hautatzeko gehiengo osoa eskatuko da lehen bozketan. Hautagaietako batek ere ez badu gehiengo hori lortzen, bigarren bozketa eginen da, baina parte hartuko dute soilik lehen bozketan boto gehien eskuratu dituzten bi hautagaiak. Boto kopuru handiena eskuratzen duen hautagaia hautatuko da. Hautagai bakarra dagoen kasuan, bigarren bozketa gehiengo soilaren bidez ebatziko da.

4. Aurreko idatz-zatian aipatutako gehiengo lortuz gero, hautagaia Nafarroako Foru Komunitateko ararteko izendatuko da.”

3. artikulua. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 23. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) letrak eduki hau izanen du aurrerantzean:

“a) Bost kide Nafarroako Parlamentuak hautatuko ditu. Horretarako, parlamentu-taldeek hautagaiak aurkez ditzakete, bost gehienez, ikus-entzunezkoen, kulturaren, unibertsitatearen edo elkartearen arloan merezimendu aitortuak dituzten eta Nafarroako aniztasun ideologikoaren isla diren pertsonen artean; hala ere, foru parlamentari bakoitzak gehienez horietako hiruri eman ahalko die botoa; botorik gehien lortutakoak izanen dira hautatuak.”

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europari buruzko informazioa sustatzeko laguntzen kontusaila sor dezan.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europari buruzko informazioa sustatzeko laguntzen kontusaila sor dezan". Mozio hori 2004ko urriaren 4ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeak, 2005eko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztutako mozioa baztertea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Adierazpen politikoa, holokaustoaren oroimenezkoa eta gizateriaren kontrako krimenen prebentzioaren aldekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2005eko otsailaren 7an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du Espainiako Gobernuaren erabakia, urtarrilaren 27a Holokaustoa oroitzeko eta gizateriaren kontrako krimenei aurrea hartzeko egun ofiziala izen-

datzen duena. Hartara, egun horretan gogora ekarriko dira nazien sarraskitze-esparruetan sufritu zuten eta hil ziren 10.000tik gora espainiarrak, erbesteratuak eta euren ideiak defenditzeagatik deportatu edo jazarriak izan ziren guztiak".

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, enplegua erregulatzeko espedienteen kopuruari buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea enplegua erregulatzeko espedienteen kopuruari buruz foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza

eta Lan kontseilari Armendariz jaunak ahoz erantzun dezan Legebiltzarreko Osoko Bilkuran:

Nafarroak enplegua erregulatzeko espedienteen kopuru neurrigabea jasan du 2004an, ia 6.000 langile ukitu dituztenak. Errealitate hori ez dator bat gure erkidegoko industriaren sendotasunari eta haren oparoaldiari nahiz etorkizunerako proiektioari buruz Gobernuak egiten duen diskurtso eztiarekin.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer arrazoi dago 2004. urtea azken hamar urteotako urterik negatiboena izan zedin eta gure erkidegoan enplegua erregulatzeko espedienteen eta ukituriko langileen kopuru handiena eman zedin?

Iruñean, 2005eko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, N-121-A errepidean falta diren tarreak egiteko epeei buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea N-121-A errepidean falta diren tarreak egiteko epeei buruz foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak Nafarroako Gobernuari zuzendutako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, eta Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoari jarraikiz tramitatzeko onar dezala eskatzen dio:

Aralar parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuari aurkeztutako ahoz erantzutako galdera, N-121-A errepidean falta diren tarreak egiteko epeei eta trazadura hobetzearen egiten ari diren lanak

erabat bukatzeari Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

Hori horrela,

Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen

diot aurreko galdera aurkeztutzat jo dezala eta behar bezala tramita dezala.

Iruñean, 2005eko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, energia plana prestatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.^aTABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egindako galdera, energia plana prestatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzónnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak enpresa pribatu bati agindu dio Nafarroako energia plana presta dezan. Plan hori noiz onetsiko zen irrikan egon gara, ez soilik daraman atzerapenarengatik, ezpa-

da Nafarroaren energia-politikari dagokionez duen garrantziarengatik. Hori dela eta, parlamentari honen ustez oso garrantzitsua da plana ahalik eta parte-hartze handienarekin prestatzea, gizarte-erakundeen eta udalen parte hartzearekin ere. Baina ez ikuspuntu formal batetik, enpresa pribatuaren eta udalen arteko bilerak publikitate egiteko erabiliz, finantza entitate batek egiten duen bezala. Gizarte-erakundeek eta udalek parte-hartze politikoa izan behar dute plan horretan, hots, onartu eta eztabaidatu egin behar dute irizpideei buruz. Parte-hartzea ezin da mugatu iradokizunen esparru periferikora, erabakiak hartzeko esparruan ere parte hartu behar baitute.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

- Zer elkarrizketari ekinen dio udalekin eta gizarte-erakundeekin energia plana onetsi aitzin?
- Zenbait udalek plana prestatzeko lanetan parte hartzeko eskatu dute. Zer bide eman die Gobernuak?

Iruñean, 2005eko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, oposizio espedienteetan dauden informazioa eta kopiak eskuratzeko oposizio-egileek dituzten eskubideei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, oposizio espedienteetan dauden informazioa eta kopiak eskuratzeko oposizio-egileek dituzten eskubideei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Foru Komunitateko administrazioak funtzio publikoko lanpostuak betetzearren deitutako hautaketa-prozesuetan ohikoa izaten da epaimahai kalifikatzaileek oposiziogileei exijitzea egindako ariketekin batera utz ditzaten agintzen zaizkien galdera nahiz kasu praktikoak jasotzen dituzten agiriak. Hala gertatu da, esate baterako, administrazio publikoko arlo juridikoko teknikari izateko lanpostuak betetzearren orain dela gutxi egin den oposizioan.

Azterketak agiri "sekretuztat" hartzeko ohitura horrek zail egiten die oposiziogileei nork bere ariketa zuzendu ahal izatea, eta horretaz gain, ez du

ematen legeria indardunarekin bateragarria denik. Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. artikulua ondoko eskubidea aitortzen die, besteak beste, herritarrei herri-administrazioekiko harremanetan: interesdunak badira, edozein unetan jakin dezakete prozeduren izapideak zertan diren, eta prozedura horietako agirien kopiak lor ditzakete. Alegia, oposizio batean parte hartzen dutenek eskubidea dute etxera eramateko espedienteko galdetegi nahiz kasu praktikoek kopia. Besterik da ez dutela normalki eskatzen, lanposturik gabe utz ditzakeen epaimahaiaren aurrean senti dezaketen beldur begiramenekoaren eraginez.

Beste batzuetan, oposiziogileek ariketa bateko kalifikazioaren aurkako erreklamazioa egin eta espedientea edo haren kopia bat eskatzen dutenean, horretarako eskubiderik ez dutela informetzen zaie, edo nork bere ariketa bakarrik, baina ez beste oposiziogileena, ikus dezakeela esaten zaie, baina praktika horrek ere ez du aipatu legean babesik.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

Organo eskudunek ezarri al dute irizpiderik oposiziogileek oposizio prozeduretako espedienteetan jasota duden agirien kopiak eta informazioa jasotzeko duten eskubidea dela eta?

Foru Komunitateko administrazioak hartzen al du neurririk eskubide horiek errespetatzen direla bermatzeko?

Iruñean, 2005eko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Atetzen ikasleentzako autobus geltokiak paratzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera, Atetzen ikasleentzako autobus geltokiak paratzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuko kontseilari Miranda jaunak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin duenez, Atetz ibarreko kontzejuek eta udalak eskatu dute bi markesina paratzeko Larraintzarko (Ultzama) eskola publiko-ra joan behar duten ibarreko ikasleak itxaroten egon daitezen.

Eskaera hori hutsala da diruaren aldetik, baina segurtasun eta premia larrikoa da inguruko bizilagunentzat, batez ere egunero joan eta etorri ibili behar duten ikasleentzat. Departamentuak, berriz, ezetza eman dio eskaerari, eta hortaz, parlamentari honek jakin nahi du ea departamentuak baiezko eta berehalako erantzuna emateko borondateirik duen, eta hala ez bada zer arrazoi duen ezetza emateko. Izan ere, parlamentari honen ustez, premiazkoa da eskari horri konponbide bat bilatzea, arazoa ikaragarri areagotu baita gure erkidegoan izan diren azken izozte eta elurteekin.

Hori dela-eta, ondoko galderak aurkeztu ditugu:

1.- Departamentuak ba al du asmorik Atetz ibarreko Udalak eskatutako bi markesinak paratzeko? Zein epetan?

2.- Erantzuna ezezkoa baldin bada, zer arrazoi darabil departamentuak eskaerari ezetza emateko?

Iruñean, 2005eko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Comptos Ganberako 2005erako plantilla organikoa eta 2004ko abenduaren 31n haren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 7an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Comptos Ganberako Lehendakariak, 2005eko otsailaren 1ean hartutako erabaki baten bitartez, Erakunde honetako 2005erako plantilla organikoa eta 2004ko abenduaren 31n haren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

onetsi zuen. Erabaki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Erabaki horren jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Comptos Ganberako plantilla organikoa 2005. urterako

Lanpostua	Kopurua	Euskaraz jakitea	Araubide juridikoa	Maila	Izendapen askea	Esklusibitatea	Lanpostua	Mailako osagarria	Berariazko osagarria
Lehendakaritzako aholkularia	1		K		X				
Lehendakaritzako idazkaria	1		K		X				
Idazkari nagusia	1		F	A	X	55	75		20
Auditorea	5		F	A		55	75		
Legelaria	2		F	A		55	50		
Kazetari-itzultzailea	1	X	F	A		55	30		
Informatikako goi mailako teknikaria	1		F	A		55	25		
Auditoretzako teknikari-kontu-hartzailea	1		F	B	X	55	35		20
Auditoretzako teknikaria	14		F	B		55	35		
Auditoretzako teknikaria	1	X	F	B		55	35		
Administratzailea	1		F	C	X	55	39	12	
Administraria	4		F	C			29	12	
Administraria	1	X	F	C			29	12	
Mandataria	2		F	D			21	15	
GUZTIRA	36								

F: Funtzionarioa

K: Kabineteko behin-behineko langilea - izendapen askekoa

**2004ko abenduaren 31n Nafarroako Comptos Ganberaren
zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda**

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Luis Ordoki Urdazi	A	5	Idazkari nagusia	Aktiboa
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	5	Auditorea	Aktiboa
Fuertes Pérez, José	A	7	Auditorea	Aktiboa
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	4	Auditorea	Aktiboa
Sesma Masa, Francisco Javier	A	5	Auditorea	Aktiboa
Lanpostu hutsa	A		Auditorea	
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	6	Informatikako Sis. Goi mailako tek.	Aktiboa
Erbiti Zabalza, Fermín	A	3	Kazetari-itzultzailea	Aktiboa
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Balduz Gil, Elvira	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	5	Auditoretzako teknikari-kontu-hartzailea	Aktiboa
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Etayo Salazar, Francisco José	B	5	Auditoretzako teknikaria	Zerbitzu bereziak
Ezquerro Royo, José Luis	B	4	Auditoretzako teknikaria	Zerbitzu bereziak
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Irigoyen Olaiz, M ^a Lourdes	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Martínez Cía, M ^a Isabel	C	7	Administratzailea	Aktiboa
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	3	Administraria	Aktiboa
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	5	Administraria	Aktiboa
Equiza Maquirrián, M ^a José	C	6	Administraria	Zerbitzu bereziak
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	4	Administraria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, A. Aurora	C	5	Administraria	Aktiboa
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	4	Mandataria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	4	Mandataria	Zerbitzu bereziak

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 42,35 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA</p>
---	--